

2023KO URRITIK HONA, GAZAN ADINGABEKO HILDAKOEN IZENEN IRAKURKETA PUBLIKO, ETENGABEA ETA KOLEKTIBOA.





Gazan oraindik gertatzen ari den genozidioaren inguruko ekintza solidario, pedagogiko eta sentsibilizazio-ekintza bat azaltzeko idazten dizuegu, eta ahal den neurrian kolaborazio txiki bat eskatzeko ere. Mesedez, irakurtzen jarraitu, proposamen hau eraginkorra, polita eta egingarria dela uste dugu.

Aurrera eraman nahi dugun performance hau Abenduaren 28-29.ko asteburuan egingo dugu Iruñean, San Francisco Plazan. 2023ko urritik Gazako 16 urtetik beherako biktimen guztien izenen irakurketa jarraitua egitea da helburua. Ekintza honen bidez, 17.868 (hildakoen kopurua eskaera hau idazten dugun egunean) zenbakiaren tamaina sentitzen, neurria hartzen, lagundu nahi dugu, publiko orokorrari. Zifra handiek hauek zarrazkiaren tamainatik urruntzen gaituztela sentitzen dugu, nolabait anesestesiasten gaituztela. Agian, ehun eta mila hildako pertsonen arteko aldea gure gorputzetan sentimentu nabarmena sortarazteko gai izan daieke, baina kopuruaren arabera, 3.000 eta 5.000 arteko aldea asimilatzea zailagoa da. Oro har, 100 eta 800 arteko aldea sentitzeko prestatuago gaude, 10.000 eta 17.000 artean baino. Eta horrek, baliteke, Palestinan gertatzen ari den sarrazkiaren buruzko iritzi publikoa arintzera laguntzen duelarem susmoa dugu.

Aukeratutako data abenduaren 28a da, Errugabeen eguna. Gure helburua irakurketa jarraitua eta partekatua izatea da (30 ordu inguru). Kaleko ikusleagoa eta gizarte eragileak gonbidatu nahi ditugu irakurketarekin bat egin dezaten in situ, zuzenean. Aldi berean, kultura edota kirol munduko pertsona ezagunei eskatzen ari gara proiektu honekin kolaboratzeko, edozein izen edo minutu kopuru irakurtzen laguntzeko.

Parte hartzeko, mesedez, deialdi honekin bat egin irakurketa honen zati bat zuentzat erreserbatuz. Ordu bat (6 minutu 10 pertsonentzat adibidez) edo egin dezakezuen denbora. Edozerrek gehitu egiten du eta ondo datorkigu!! Denbora ahalik eta hobeto kudeatzeko, eta zuen datuak edota gaiaren inguruan zuek proposatutako bideo baten proiektzioa antolatzeko, ordutegi bat asignatuko zaizue (negoziagarria, txarto badatorkizue).

Eta amaitzeko, irakurle den orori mezu bat, ideia bat, desio bat, eskaera bat, zerbait positibo bat eskatu nahi diogu, bertan mural batean idazteko. Ez dugu porrot sentsazio batean geratu nahi, pixka bat ederragoa izan daitekeen mundu bati keinu bat egitea baizik. Milesker aldez aurretik.

Hori bai, argipen edo informazio gehiago behar baduzue, mesedez 69687878 telefonora deitu   , maratongaza28D@gmail.com era e-mail bat bidali edo @maratongaza28D Instagramera idatzi arazorik gabe.

YALA
NAFARRA
con PALESTINA

